



# **Bizkaiko Foru Aldundiaren Partaidetzaren Mapa**

2022ko Urria

 **Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

## Zer da Partaidetzaren Mapa?

Herritarren parte-hartzeak, herritarrek politika publikoak zehazten eta politika horiek gauzatzeko edo kudeatzeko moduak zehazten lagundu ahal izateko prestatutako modu eta prozedurak garatuz, funtsezko lekua du Bizkaiko Foru Aldundiaren jardunean.


Zentraltasun horri erantzuna emateko, Bizkaiko Foru Aldundiak hainbat mekanismo, prozesu eta tresna ditu, gure gizartearen eta enpresen ahots eta esperientzia guztiak izateko aukera ematen dutela bermatzeko, eta, aldi berean, barne eta erakunde arteko koordinaziorik handiena bermatzeko.

Aldundiak dituen mekanismoen artean, parte-hartze egonkorerrako edo egiturazko organoak daude. Organo iraunkor edo egonkor horiek topagune eta elkarlanerako gune gisa eratzen dira, gure gizartearen erronkei erantzuteko eta balio publikoa sortzeko, eremu horietako bakoitzean, eragile eta erakunde giltzarrien parte-hartzearen bidez. Hainbat motatako organoak daude, beren funtzioaren eta horietan parte hartzen duten eragileen arabera, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Partaidetzaren Mapa izenekoan jasotzen dira.



**Bizkaiko Foru Aldundiaren  
Partaidetzaren Mapak  
Aldundiaren kudeaketa-eremuei  
dagokienez, PARTE HARTZEKO  
DITUGUN EGITURAZKO AUKERA  
GUZTIAK batzen ditu**

## Parte hartzeko organo egonkorak 3 kategoriatan sailka ditzakegu, haien funtzioaren eta horietan parte hartzen duten eragileen tipologiaren arabera:



Gaur egun, Bizkaiko Foru Aldundiaren Partaidetzaren Mapa osatzen duten **40** partaidetza-organo daude



## Gaur egun, hauek dira Bizkaiko Foru Aldundiak sustatutako PARTE-HARTZE SOZIALEKO 20 ORGANOAK



Gizarte-Partaidetzako organoak

Organoaren izena	Saila	Organoaren funtzioa
<b>ELKARRIZKETA ZIBILERA KO MAHAIA</b>	Gizarte Ekintza	Elkarrizketa eta lankidetzaren sustatzea esku-hartze sozialaren eremuan, gizarte-politikak, gizarte-partaidetza, gobernantza eta, azken finean, Bizkaiko herritarren gizarte-koherentsia eta inklusioa bultzatzeko. Era berean, erakundeek eta sareek (eta, horien bidez, esku-hartze sozialaren hartzaile eta protagonista diren pertsona, familia, kolektibo eta komunitateek) beren iritzia emateko eta politika publikoetan parte hartzeko duten eskubidea bideratzen da.
<b>ADINEKOEN KONTSEILUA</b>	Gizarte Ekintza	Bizkaian zahartze aktiboa sustatzeko baldintzarik onenak sortzea, 60 urtetik gorako pertsonen parte-hartze foroaren bidez. Hori guztia erakundeen eta elkarten bidez, haien ongizatea lortzeko politikak eta jarduerak planifikatzen, gauzatzen eta haien jarraipena egiten laguntzeko.
<b>GIZARTEAN ESKU HARTZEKO ETIKA BATZORDEA (GEHEB)</b>	Gizarte Ekintza	Esku-hartze sozialaren praktikarekin sor daitezkeen gatazka etikoak konpontzeko azterketa eta aholkularitza, eta horren kalitatea hobetzeko irtenbideak bilatzea.
<b>OSASUN MENTALEKO ZENTROEN BATZORDE IRAUNKORRA</b>	Gizarte Ekintza	Buruko gaixotasuna duten pertsonentzako egoitzetako eta eguneko arretako foru zerbitzua sustatzea eta hobetzea.
<b>ARRETA GOIZTIARREKO ZENTROEN BATZORDE IRAUNKORRA</b>	Gizarte Ekintza	Arreta goiztiararren arloan erabakiak hartzea, Arreta Goiztiarreko zerbitzu publikoaren kudeaketari, antolaketari eta funtzionamenduari buruzko iradokizunak eta proposamenak aztertuta.
<b>MENDEKOTASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO EGOITZEN FORU-SAREAN INTEGRATUTAKO ZENTROEN BATZORDE IRAUNKORRA</b>	Gizarte Ekintza	Erabakiak hartzea eta zentroek adinekoentzako egoitzen foru-zerbitzu publikoaren kudeaketan parte hartzea erraztea.



Organoaren izena	Saila	Organoaren funtzioa
<b>BILBAO BIZKAIA ACTION GROUP (BBAG)</b>	Ekonomia sustapena	Sektoreko eragileen topagunea, Bilbo-Bizkaian turismoa sustatzeko politikak eta jarduerak planifikatzen, gauzatzen eta haien jarraipena egiten laguntzeko.
<b>BILBAO BIZKAIA DESIGN COUNCIL (BIDC)</b>	Ekonomia sustapena	Diseinua eta sormen-industriak sustatzea Bilbon eta Bizkaian, gazteen enplegua sortzen duten eta garatzeko ahalmen handia duten sektoreak diren aldetik, batez ere hiri-inguruneetan, hiriaren eta lurraldearen etorkizunerako irtenbide estrategikoak aurreikusteko eta proposatzeko duten gaitasunagatik.
<b>BIZKAIKO EMAKUMEEN PARTAIDETZA KONTSEILUA</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta berdintasuna	Topaketa-gunea, proposamenak, hausnarketak eta ekarpenak egiteko kolektibo feministen, emakume-elkarte eta -taldeen eta beste erakunde eta organismo batzuen aldetik, emakumeek gizartean duten eginkizuna eraldatzeko eta haien bizi-baldintzak eta Bizkaia osoan duten posizioa hobetzeko.
<b>DANTZABIZ. DANTZAKO AHOLKULARITZA-BATZORDEA</b>	Euskera, Kultura eta Kirola	Arte- eta lan-arloko lankidetzak, dantzaren arloko profesionalen arteko trukeak eta arte horrekin lotutako hainbat diziplinako kultura-proiektuak sustatzea (koreografia, atrezzoak, teknikariak, interpreteak...).
<b>EUSKERA BIZIA BATZORDEA</b>	Euskera, Kultura eta Kirola	Euskararen aldeko jarduerak garatzea, arlo honetan lan egiten duten elkarte eta erakundeen arteko koordinazioaren eta lankidetzaren bidez.
<b>ESKOLA KIROLAREN BATZORDEA</b>	Euskera, Kultura eta Kirola	Bizkaiko eskola-kiroleko jarduerekin zerikusia duten gaiei buruzko eztabaidarako eta hausnarketarako gunea, kirol-jarduera sustatzen duten eragileek egiten duten lana sustatuz eta elkarlanean arituz, beren orientabideetatik abiatuta: osasuna, aisialdia, hezkuntza eta lehiaketa.
<b>EUSKADIKO GAZTERIAREN KONTSEILUA</b>	Ahuldun Nagusiaren Kabinetea	Gazteen elkarte-mugimendua eta Bizkaiko administrazio publikoak bultzatzea eta koordinatzea, toki-eremuan gazte-politika integralak garatu eta ezartzeko.
<b>GAZTE SAREGILEAK TALDE MENTOREA</b>	Ahuldun Nagusiaren Kabinetea	Gazteriarekin hausnartzeko, hitz egiteko eta eztabaidatzeko gune iraunkorra, Bizkaiko gazteriaren arloko eragile garrantzitsuenekin duten harremana sustatzeko.





Organoaren izena	Saila	Organoaren funtzioa
<b>URKIOLAKO PARKE NATURALAREN JARRAIPENERAKO PATRONATUA</b>	Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala	Urkiolako Parke Naturalaren aldeko ekintzak sustatzea, arauak betetzen direla zainduz, hura kontserbatzeko neurriak proposatuz, hari buruzko ezagutza hobetuz eta parke naturalaren balioak aztertu, zabaldu eta gozatzeko jarduerak sustatuz.
<b>GORBEIAKO PARKE NATURALAREN JARRAIPENERAKO PATRONATUA</b>	Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala	Gorbeia Parke Naturalaren aldeko ekintzak sustatzea, arauak betetzen direla zainduz, hura kontserbatzeko neurriak proposatuz, parkeari buruzko ezagutza hobetuz, eta parke naturalaren balioak aztertu, zabaldu eta gozatzeko jarduerak sustatuz, bai eremuko garapen ekonomiko eta sozialerako jarduerak ere.
<b>URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN PATRONATUA</b>	Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala	Erreserbaren ondarea kontserbatzea eta behar bezala administratzea, eta haren balioak eta berezitasunak eraginkortasunez defendatzeko arauak eta jardura-proposamenak sustatzea. Erreserbako ingurune fisikoan eragina duten hiri-antolamenduko planei eta plan sektorialeiei, jarduketa-programei edo ikerketa-proiektuei buruzko elkargunea eta informazioa da.
<b>ARMAÑONGO PARKE NATURALAREN JARRAIPENERAKO PATRONATUA</b>	Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala	Armañongo Parke Naturalaren aldeko ekintzak sustatzea, arauak betetzen direla zainduz, hura kontserbatzeko neurriak proposatuz, parkeari buruzko ezagutza hobetuz eta parke naturalaren balioak aztertu, zabaldu eta gozatzeko jarduerak sustatuz.
<b>ARRANTZA KONTINENTALEKO KONTSEILUA</b>	Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala	Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailari aholkularitza ematea arrantza kontinentalaren arloan.
<b>EHIZA-KONTSEILUA</b>	Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala	Erakundeen sustapena eta koordinazioa (Bizkaiko Foru Aldundia eta sektorearekin lotutako beste eragile eta erakunde batzuk), ehizarekin lotutako gaiak lantzeko.



## Ondorengo 17 ORGANOEEN bitartez Bizkaiko Foru Aldundiak ERAKUNDE ARTEKO KOORDINAZIOA sustatzeko partaidetza eramaten du aurrera



*Erakunde arteko Koordinazio-  
organoak*

Organoaren izena	Saila	Organoaren funtzioa
<b>ARRETA GOIZTIARREKO ERAKUNDEARTEKO KONTSEILUA</b>	Gizarte Ekintza	Erakundeen arteko koordinazioa, 0 eta 6 urte bitarteko haurren arreta goiztiarrean inplikaturako osasun-sistemetako, hezkuntzako eta gizarte-zerbitzuetako profesionalen eta erakundeen arteko lankidetzaren eta koordinazio eraginkorra bermatzeko.
<b>EUSKAL NAZIOARTEKOTZE PARTZUERGOA</b>	Ekonomia sustapena	Euskal Autonomia Erkidegoko nazioartekotzea sustatzeko politika publikoa eta ekimenak planifikatzea eta koordinatzea.
<b>EUSKADIKO EKINTZAILETZAREN ERAKUNDEARTEKO 2020 PLANERAKO MAHAIA</b>	Ekonomia sustapena	Ekintzaitzaren arloko sailen arteko eta erakundeen arteko harremana eta koordinazioa antolatzea (2020ko Enpresak Nazioartekotzeko Plana diseinatzea, lantzea, kontratatzea eta aurrez onartzea, bai eta planaren ezarpenaren urteko jarraipena eta ebaluazioa egitea ere).
<b>BIZKAIA OREKAN SAKONDUZ</b>	Ekonomia sustapena	Udalen, mankomunitateen eta lurralde-lehiakortasuneko agentzien artean erronkak identifikatzea, eta lankidetzazko erantzuna ematea Bizkaiko eragileekin batera.
<b>EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE ANTOLAMENDURAKO BATZORDEA</b>	Azpiegiturak eta Lurralde Garapena	Udal-erri-, lurralde- eta estatu-mailako koordinazioa lurraldearen, itsasertzaren eta hirigintzaren antolamenduaren arloan (politikaren oinarritzko irizpideak lantzea, eta jarduketak proposatzea eta lurralde- eta hiri-plangintza gauzatzea).
<b>ALKARBIDE</b>	Euskera, Cultura y Deporte	Aholkularitza, koordinazioa, formakuntza, prestakuntza eta laguntza, Bizkaiko toki-erakundeetan euskara sustatzeko politikak modu integralean eta partekatuan garatzeko eta gauzatzeko.







Organoaren izena	Saila	Organoaren funtzioa
<b>KULTURGINTZAN FOROA</b>	Euskera, Kultura era Kirola	Bizkaiko Lurralde Historikoko udal eta mankomunitateen kultura-politikak bultzatzea, garatzea eta eguneratzea.
<b>EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA</b>	Euskera, Kultura era Kirola	Euskararen erabileraren normalizazioan inplikaturako erakunde publiko eta pribatuen ahaleginak eta jarduerak aztertu, bideratu eta koordinatzea.
<b>UDALTOP (UDALETAKO EUSKARA ZERBITZUEN TOPAKETAK)</b>	Euskera, Kultura era Kirola	Udaleko euskara zerbitzuen hobekuntza sustatzea, udalen artean esperientziak trukatzuz, jarduerak hobetzeko moduari buruzko hausnarketa eginez eta esperientzia kolektibo berriak bateratuz.
<b>HERRI AGINTEEN ARTEKO KOORDINAZIORAKO BATZORDEAREN (HAKOBA)</b>	Euskera, Kultura era Kirola	Hizkuntza-politikaren arloan eskumena duten botere publikoen arteko lankidetzaz, ildo horretan jardun koordinatua lortzeko.
<b>KULTURAREN EUSKAL KONTSEILUA</b>	Euskera, Kultura era Kirola	Esparru horretan eskumenak dituzten erakundeek Kulturaren Euskal Plana egokitu, garatu eta ebaluatzea.





Organoaren izena	Saila	Organoaren funtzioa
<b>UDAL GAZTEDIKO LURRALDE KONTSEILUA</b>	Diputatu Nagusiaren Kabinetea	Bizkaiko Lurralde Historikoko toki-eremuko gazte-politika integralak koordinatzea.
<b>BIZKAIKO IRAUNKORTASUNERAKO KONTSEILUA</b>	Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala	Jasangarritasun-politikak koordinatzea Bizkaiko Batzar Nagusien eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Aldundiaren artean, Bizkaiko garapen jasangarriko politikak sustatzeko eta haien jarraipena egiteko.
<b>BIZKAIKO HIRI-HONDAKINEN LURRALDE KONTSEILUA</b>	Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala	Bizkaiko udalerrien eta Foru Aldundiaren arteko parte-hartzea eta koordinazioa, lurraldean hiri-hondakinak kudeatzeari dagokionez, Bizkaiko Hiri Hondakinak Kudeatzeko Planaren jarraipena, kontrola eta berrikuspina bultzatzeko, bai ekimen berriak edo administrazioen arteko lankidetzarako eta lankidetzeta publiko-pribaturako mekanismoak proposatzeko ere, Bizkaiko hiri-hondakinen kudeaketan.
<b>UDALSAREA 2030 - UDALERRI JASANGARRIEN EUSKAL SAREA</b>	Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala	Erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetzeta, EAEko udalerrien jasangarritasun-agendak dinamizatzeko (Tokiko Agenda 21), eta haien ekintza-planen betearazpena bultzatzeko.
<b>EUSKADIKO IRUZURRAREN KONTRAKO BORROKARAKO BATZORDEA</b>	Ogasuna eta Finantzak	Eusko Jaurlaritzaren eta aldundien arteko zerga-koordinazioa, urtero zerga-iruzurraren aurka borrokatzeko baterako plan bat egiteko.
<b>BIZKAIKO FINANTZEN LURRALDE KONTSEILUA</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Udalerriekin parte hartzea eta koordinatzea, Bizkaiko Lurralde Historikoan udal-finantzaketa banatzeko eta sektore publikoaren ekonomia-, finantza- eta aurrekontu-jarduera koordinatzeko.



Bizkaiko Foru Aldundiak BARNE-KOORDINAZIORAKO 3 ORGANO EGONKOR ditu, Bizkaiko garapen jasangarrirako zeharkako politiken diseinu eta gauzatze eraginkor eta efizientea bermatzen dutenak, eta Foru-Sailen lankidetzak eskatzen dutenak




Barne-Koordinazioko organoak

Organoaren izena	Parte-hartzaileak	Organoaren funtzioa
<b>EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO SAILARTEKO BATZORDEA</b>	Foru-sailak	Foru-sailen arteko elkarrizketa etengabea, baita Aldundiak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan egiten dituen jarduerak koordinatzea ere, eta Sailarteko Talde Teknikoa - Berdintasuna Taldea sustatzea. Politika benetan zeharkakoa dela bermatzea da helburua.
<b>BIZKAIKO GAZTERIAREN FORU BATZORDEA</b>	Foru-sailak	Gazteen emantzipazioa sustatzeari buruzko aholkularitza eta kontsulta, arlo horretako zeharkako politiken eta politika integralen garapena bermatuko duen gazte-politika integral bat modu koordinatuan bultzatuz.
<b>IRAUNKORTASUNERAKO FORU BATZORDEA</b>	Foru-sailak	Lankidetzak teknika jasangarritasun-politikak betetzeko eta BFAk bultzatutako ekintzetan txertatzeko. Horrez gain, zeharkako programa, plan eta azterlanen ezarpena egin eta koordinatzeaz gain (energiaren, osasunaren eta hezkuntzaren eta jasangarritasunaren arloan), Bizkaiko udalei aholkularitza ematea jasangarritasunaren arloko finantzaketa-programei buruz, udal-politikei dagokienez.



Organo bakoitzaren inguruko informazio gehiago izateko, kontsultatu ezazu gure parte-hartzean inguruko webgunea:

<https://web.bizkaia.eus/eu/herritarren-eta-gizartearen-partaidetza>



Bizkaiko Foru Aldundiak parte hartzeko organo, espazio eta baliabide egonkorra ditu, eta horiek dira parte-hartzea errazteko bitarteko iraukorrak. **Organo, espazio eta baliabide horiek foru sail guztiak barne hartzen dituzte, eta Bizkaiko herritarren eta enpresen oinarritzko beharrei lotutako sektore alorrak barne hartzen dituzte.**

**Organo eta baliabide horiek ezinbestekoak dira Bizkaiko Foru Aldundiaren parte-hartze politikarako, 2 arrazoi hauengatik:**

1. Espazio horietako taldeek eta erakundeek Bizkaiko gizarte zibilaren aniztasuna eta aberastasuna ordezkatzen dute.
2. Gizarte erakunde eta pertsona entzutetsuek parte hartzeak espazio horiei balio handia ematen die, eta, horrenbestez, foru aldundiaren kudeaketa goraipatzen da, jorratzen diren sektore alorretako ikuspegi kualifikatua eskaintzen delako.

Parte-hartze hori errazteko, Bizkaiko Foru Aldundiak, organo eta espazio egonkor horien zuzendaritza eta koordinazio sailen bidez, horiek ondo funtzionatzeko zainduzen du eta horietan, kasu bakoitzeko erreferentziarako gizarte sektoreek parte-hartze anitza izatea bermatzen du.

Organo, espazio eta baliabide egonkor horiek [Bizkaiko Foru Aldundiaren Parte-Hartze Mapan](#) jasota daude.

Hona hemen organo, espazio eta baliabide egonkor horietako link-ak: